

## KAMELLUBA ETA CHIMUA



Chimua bere ume  
 batekin penoso,  
 zijoala bidean  
 nekaturik oso,  
 gertaturik Kamellu  
 bat pasatzia an,  
 esan zion ia nai  
 zuben gañean joan;  
 eta bi aldiz esan  
 baño len itz bera  
 ume ta guzi iyo  
 zitzaion gañera.  
 Ala, au zan denboran  
 nai erara jarri,  
 kamellubak segitu  
 zion bideari.  
 Gisa artan ipiñik  
 joan era aundiya,  
 eta bear tokiyan  
 ziranean iya,  
 bide dena pasarik  
 neke gabetanik,  
 Kamellu onak esan  
 zion:—Chimuba, nik  
 orain joan biarra det

beste bidetikan  
 eta jachi biarko  
 dezu gañetikan;  
 eta aserreturik  
 onetaz chimuba,  
 esan zion, igoaz  
 zeukala damuba;  
 jiboso zar trakesbat  
 besterik etzala,  
 zori gaiztoan aren  
 gañian joan zala;  
 eta chimuba gandik  
 alako paguba  
 artuttez, penaturik  
 joan zan Kamelluba.

. . . . .

Gizonak onraduba  
 biar badu izan,  
 ezdu jarraitu bear  
 chimubaren gisan;  
 mespreziatzen duena  
 egiten dan ona,  
 izango da chimua  
 eta ez gizona.